



NIK, ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ, ZUMAIA UDALEKO BEHIN BEHINEKO

IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT

2023ko martxoaren 30eko Ohiko Osoko Bilkuran ondorengo ordenantzari hasierako onarpena ematea onartu zela ondorengo botoekin (14 aldeko botoak -8 EH Bildu; 5 EAJ-PNV eta 1 ES-SV).

“ZUMAIKO ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA”.

LEHENENGOA. Hasierako onarpena ematea ZUMAIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI, espedientean jasotzen den moduan.

BIGARRENA. Udal-ordenantza hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratuta, 30 eguneko epean erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Horiek Udalbatzak ebatziko ditu. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren berariazko akordiorik behar izan gabe.

Aldi berean, udal-ordenantzaren testua Udalaren web-atarian argitaratzea, herritar interesdunei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioetarako, ziurtagiri hau eman dut,

Zumaian,

IDAZKARIA,

O.E. ALKATEA,

Dokumentu kod.	2023IERR0004-H23/00096
CUDO kodea	000.0081.AAAAE4SZ.V.84vL
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE4SZV.84vL